

## XVI. Berdintasunerako gunea / Foro para la igualdad 2019

Lagun agurgarria:

Emakunde-Emakumeen Euskal Erakundeak **“XVI. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN GUNEA”** martxan jarri du, erakunde publiko eta pribatuek gizon eta emakumeen berdintasunaren alde antolatzen dituzten hainbat ekimenen urteroko topaketa. Aurten, **2019ko urriaren 13tik abenduaren 13ra egingo dugu.**

Edizio honetan, aurreko urteetan oso harrera ona eduki duenez, gune ibiltariaren formatua mantenduko da. Autobusa bi hilabete t´erdiz EAEko herrietara helduko da eta gunearen ekitaldien lekua izango da.

2019 guneak martxoaren 8ko kanpainaren lelo berbera izango du **“Erabakitzen dudana izango naiz”** ahalduntzean eta genero mugarik gabe etorkizuna aukeratzeko eskubidean arreta jartzen du, modu aske batean eta berdintasunean.



Emakundetik zure elkarte edo erakundeak gune honetan parte hartzea nahi genuke. Horretarako, pentsatuta daukazuen ekitaldiren bat (jardunaldia, mahai-ingurua, mintegia, hitzaldia, esperientzien aurkezpena, e.a.) marko honetan antolatuzera gonbidatzen zaituztegu. Erakunde bakoitzak bere ekimenaren ardura osoa izango du: edukia, antolamendua (aretoa, kudeaketa, ordutegia, hizlariak, deialdia, e.a.) eta ordainketa. Emakundek, berriz, erakunde antolatzaileen koordinazioa eta foroaren idazkaritza lanak eskainiko ditu, eta, azkenik, on line argitaratuko den egitaraua landuko du. Aldi berean, gunean egingo diren ekintzak hedatu eta ikustarazteko komunikazio mailan lan egingo dugu.

Zuen eskariak jasotzeko azken eguna uztailaren 24a izango da. Eta horretarako [izen-emate](#) buletina bete behar duzu. Kontuan har itzazu data garrantzitsu guztiak.

Ekimen hau zure interesekoa izango delakoan eta hausnarketa eta topaketa gune honetan zuen parte-hartzea izango dugulakoan, agur bero bat.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 18a

Izaskun Landaida Larizgoitia  
Zuzendaria